

PSIKOLOGIAKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Psikologiako Lizentziatura (Neuropsikologiako espezialitatea). Gerontologiako prestakuntza osagarria
- Psikologoaren Elkargo Ofizialeko txartela
- Adinekoen egoitzetan zein eguneko zentroetan, gizarte-zerbitzuetako sailtan eta banakako nahiz taldekako jarduketetan izandako esperientzia balioetsiko da

Azalpena

Babesten Taldean, PSIKOLOGO bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, medikuaren eta laguntzako arduradunaren menpean:

- Erabiltzaileei kalitateko arreta psikologiko espezializatua ematea, euren gaitasun kognitibo zein psiko-afektibo eusteko edota hobetzeko, diziplinarteko lanaren esparruan jarduketarako programetan egindako balioespenaren, plangintzaren eta betearazpenaren bidez.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Honako arlo hauetako jarduerak antolatzea, koordinatzea edota garatzea: estimulazioa, errealitaterako orientazioa, oroimena...
- Egoera gatazkatsuak kontrolatzen laguntzeko orientazioa eta teknikak proposatzea zentroko medikuaren laguntzaz, erabiltzaileen jokabideak behar den modukoak ez direnean.
- Erabiltzaileen bilakaerarekin eta egunero garatutako jarduerarekin lotutako datuak erregistratzea eta kontrolatzea (artatutako erabiltzaileak, erabiltzaileekin egindako saioen kopurua...)
- Diziplina anitzeko taldearekin BAPren prestaketan lan egitea. Txosten horren koordinazioaz eta jarraipenaz arduratzea eta diziplina anitzeko bileren plangintza egitea.
- Erabiltzaileen eta haien familien integrazioa eta partaidetza sustatzea.
- Erabiltzaileen senideekin harremanetan jarraitzea, haien inguruan gertatzen diren arazoan edo desoreken berri edukitzeko. Horretarako, behar besteko informazioa eta laguntza ematea.

- Diziplina anitzeko taldearen edota gainerako sailen bileretan parte hartzea, sailaren kronogramaren arabera.
- Banakako Arreta Zuzeneko langileei agindutako programak ezartzea, koordinatzea eta ikuskatzea.
- Oro har, aurretiaz zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jarduera guztiak egitea, euren titulazioaren eta lanbidearen arabera.
- Jarraibideen jarraipenerako behar diren erregistroak egitea eta kontrolatzea.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Erabiltzaileen balioespen neuropsikologikoa, diagnostiko emozionala eta jokabidearen diagnostikoa egitea eta kasuan kasuko txosten psikologikoa egitea.
- Helburu terapeutikoak zehaztea eta banakako zein taldekako psikoestimulaziorako programak ebaluatzea gainerako profesionalen laguntzaz.
- Erabiltzaileen gaitasun kognitibo eta psikoafektiboen jarraipena eta aldian aldiko ebaluazioak egitea.
- Erabiltzaileei eta haien familiei ongietorria emateko ekintzak egitea, sarreraren ondorioz sortutako eragin psikologikoa txikiagoa izan dadin. Familiei laguntza psikologikoa ematea.
- Erabiltzaile guztien ebaluazioa/jarduketa egitea, balioespen psikologikoan oinarrituta: balioespen kognitiboa, balioespen afektiboa eta sartzean eta ostean egindako balioespen funtzionala.
- Errehabilitazio kognitiboa egitea eta egoiliarren gaitasun kognitibo, afektibo eta funtzionalei eustea, jarduketarako zenbait programaren ezarpenaren bidez: psikoestimulazioa, oroimenaren trebakuntza, depresioa, antsietatea, demenziarekin lotutako jokabide-arazoak...
- Diziplina anitzeko taldearekin batera, banakako arretarako planen prestaketan parte hartzea.
- Zentroan sartzeagatik sortutako antsietatea eta depresioa gutxitzea.
- Erabiltzaileen bakardade eta isolamendu sentipena murriztea. Haien artean gizarteratzeko prozesua sustatzea.
- Heriotzaren aurrean, egokimenak lantzea (depresioa, beldurra, estutasuna...).
- Erabilgarritasun-sentipena indartzea, euren gaitasunak agerian jartzeko eta euren aldartea hobetzeko.
- Buru-estimua, norberaren nortasuna eta norberarenganako konfiantza suspertzea.
- Sentipenen adierazpena sustatzea eta ilusio berriak suspertzea.
- Zentroko profesionalen eta egoiliarren arteko harremana hobetzea.

Zentroko langileei dagokienez:

- Diziplinarteko taldearekin lan egitea. Horretarako, taldearen zerbitzu espezializatuen osagarri, psikologiako lanpostuko berezko zereginak garatzea, kasuan kasuko zerbitzuak emateko.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa